

# **ESPAINIAKO MINBIZIAREN AURKAKO**

## **ELKARTEA:**

### **TALDE TRASLAZIONALEN DEIALDIA AECC 2017**

#### ***Xedea:***

Deialdi honen helburu da ikerketa traslazionaleko talde koordinatu egonkorak finantzatzea, ikerketak egiteko erabiliko dituzten zentroekin edo ospitaleekin hitzarmena formalizatuz.

Helburu horietarako, diziplina anitzeko talde gisa ulertuko dira 2 ikerlariz (3 edo gehiago izatea gomendatzen da) osatutakoa. Bertan, ikertzaile talde klinikoan eta oinarrizko ikertzaile taldeen parte hartzea beharrezkoa izango da. Taldeek zentro diferentetako langilez osatuta egon beharko dute. Behar bezala justifikatutako kasutan zentro bakar bateko langileek osatu ahal izango dute.

Proposamenaren laguntzaileen artean talde sortuberri bat sartzea (ikerketa ildo bat hasi eta 5 urte igaro arte) baloratuko da.

#### ***Diru laguntzen ezaugarriak:***

- Arazo klinikoak konpontzeko oinarrizko ikerketa tresnak erabiltzea kontuan hartuko dituen edo, beste bide batetik, oinarrizko ikerketaren aurkikuntzak praktika klinikora eramaten saiatuko den ikerketa onkologikoko ildo baten esparruko jardueri lotuta egon beharko dute proiektuek. (oinarrizko esparrua, kliniko, epidemiologikoa eta osasun zerbitzuena).
- Laguntzek 5 urte iraungo dute.
- 1.000.000 euro eta 1.200.000 euro gordin arteko zenbatekoa emango da, 5 urtetan banatua.

#### ***Bateraezintasunen araubidea:***

- Laguntza hau AECC Zientzia Fundazioak emandako beste edozein laguntza jasotzearekin bateraezina da, baldin eta "Ideas AECC" ("Ideas Semilla" modalitatea) Laguntza edo deialdirako aurkeztutako unean indarrean dagoen AECC elkartearen Probintzia Batzordeek ematen duten bat ez bada.
- "Ideas Semilla" modalitatearen kasuan, Taldeentzako laguntza ematen hasi eta hirugarren urtetik aurrera aurkeztu ahal izango dute eskaera bat.
- Aurreko deialdietan laguntza jaso duten pertsonak deialdi honetarako eskaera aurkeztu ahal izango dute, baldin eta jaso duten beste Laguntza hori amaitu denetik esku hartu nahi duten deialdi hau itxi arte urtebete igaro bada.
- Eskaera bat proiektuko deialdi baterako eta beste eskaera bat pertsonaleko deialdi baterako aurkez daiteke. Bi deialdi horietan onuradun suertatuz gero, diru laguntza txikiena ematen duenari uko egin beharko dio eta esleitutako proiektuan doktorego ondoko pertsonal gisa hasi beharko du lanean.
- AECC Zientzia Fundazioaren laguntza bizi baten Zuzendaria bada, deialdi honetan parte hartu ahal izango du. Laguntza horren onuradun suertatuz gero, diru laguntza txikiena ematen duenari uko egin beharko dio eta esleitutako proiektuan doktorego ondoko pertsonal gisa hasi beharko du lanean.
- Laguntza hau eta helburu bera duen beste edozein finantziario iturri publiko edo pribatu bateraezinak dira.
- Deialdi honetan proposamen bakarra aurkeztu ahal izango da. Hautagaitza aurreragoko deialdietarako ere aurkeztu ahal izango da, badin eta aurkeztutako proiektuan eta/edo ikertaldean aldaketak egin badira.

**Proiektuari egozteko moduko gastuak:** "Proiektuari egozteko moduko gastuak" dokumentua kontsultatu.

**Eskabideak aurkezteko epea:**  
2017ko otsailaren 15ean, 15:00etan

2017ko otsailaren 9a (hau barne)	I. Eranskina bidaltzea proposatutako pertsonalaren zerrendarekin. Eranskina <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.es">convocatorias.dgi@ehu.es</a> helbidera igorri beharko da, mezuaren gaiari honakoa adieraziz: "Grupos Traslacionales AECC".
2017ko otsailaren 13a (hau barne)	Proiektuaren memoria beteta bidaltzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak emaitzak hedatzeko eta jakinarazteko planaren c) atala bete dezan. Memoria <a href="mailto:convocatorias.dgi@ehu.es">convocatorias.dgi@ehu.es</a> helbidera igorri beharko da, mezuaren gaiari honakoa adieraziz: "Grupos Traslacionales AECC".
2017ko otsailaren 15a	<b>ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAREN AMAIERA.</b>

**Eskabideak aurkezteko modua:**

Eskabideak AECC Zientzia Fundazioaren web plataformaren bidez (<https://fundacioncientifica.aecc.es/login>) aurkeztu beharko dira

**AECC Zientzia Fundazioko bitartekoa harremanetarako:**

Tel.: 91 310 82 54

Helbide elektronikoa: [fundacion.cientifica@aecc.es](mailto:fundacion.cientifica@aecc.es)

**UPV/EHUko bitartekoa harremanetarako:**

Tel.: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: [convocatorias.dgi@ehu.es](mailto:convocatorias.dgi@ehu.es)

**Informazio gehiago:**

<https://fundacioncientifica.aecc.es/tramites/TR0000000848>